



## GOIERRI-UROLA GARAICO ESI

182/2019 EBAZPENA, martxoaren 22koa, Goierri-Urola Garaiko ESIko Zuzendari Gerentearena, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Goierri-Urola Garaiko ESI-n Legazpiko Lehen Mailako Arretako Unitateburu lanpostu bat izendapen askez betetzeko.

Goierri-Urola Garaiko ESI-n Legazpiko Lehen Mailako Arretako Unitateburu lanpostua hutsik dago. Hori dela-eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Zuzendaritza Gerentzia honek, honako oinarrien arabera:

### OINARRIAK:

#### 1.- Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute honako baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenak:

a).- Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetan, estatutupekoa, funtzionarioa edo lan-kontratudun finkoa izatea eta plaza jabetzan edukitzea A1/B1 lanbide-taldean.

#### b).- Titulu hauetakoren bat izatea:

1.- Medikuntzan eta Kirurgian lizentziatura izatea, Familiako eta Komunitateko Medikuntzako espezialitatearekin edo Medikuntza Orokorreko Medikuen eginkizunak betetzeko ezarritako titulu, ziurtagiri edo diplomaren batekin, uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren (Osakidetzako lanpostu funtzionalak arautzen dituen) I. Eranskinean aurreikusitakoaren arabera; edo Pediatrian espezialitatea izatea.

#### 2.- Erizaintzako unibertsitate-diplomatura.

c).- Hizkuntza-eskakizuna: 2. hizkuntza-eskakizuna, Euskararen erabilera Osakidetzan normalizatzeko den martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak, eta berau garatzen duten arauak, xedatutakoaren arabera

d).- Lanbide-esperientzia: gutxienez, 4 urteko esperientzia izan beharko dute, A1/B1 lanbide-taldeetako zereginetan.

#### 2.- Aintzat hartuko diren merituek:

Baloratu egingo da Legazpiko Lehen Mailako Arretako Unitateko Kudeaketa Memoria-Proiektua.



### 3.- Euskararen ezagutza:

Euskararen erabilera Osakidetzan normalizatzeko den martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak, eta berau garatzen duten arauak, xedatutakoaren arabera baloratuko da.

### 4.- Eskabideak aurkezteko epea:

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Goierri-Urola Garaiko ESiko Pertsonaleko Zuzendaritzara (Argixao auzoa. z/g. 20700 Zumarraga) aurkeztu beharko dituzte eskabideak, 10 egun balioduneko epean, Ebazpen hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Halaber, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16 artikuluan adierazitako leku eta moduetan ere aurkeztu ahal izango dira agiriak ( Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea).

Interesdunek eskabidea datu pertsonal guztiekin bete eta dokumentatutako "curriculum vitae"-rekin batera Goierri-Urola Garaiko ESiko Pertsonaleko Zuzendaritzara bidali beharko dute. Dokumentazioa honelakoa izan behar da:

- a) NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- b) Funtzionario edo estutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala badagokio, lan-kontratu finkodun langilea dela egiaztatzen duen agiriarena.
- c) Baldintzak betetzea egiaztatzen duen dokumentazioaren fotokopia konpultsatua.
- d) Lehen Mailako Arretako Unitateko Memoria-Proiektua

Ez da beharrezkoa izango aurreko paragrafoan adierazi den bezala egiaztatzea CV aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala egiaztatuta dauden guztiak, nahiz eta izangaiak eskabidean adierazi behar duen hori horrela dela.

### 5.- Balorazio Batzordea:

Batzorde bat eratuko da aurkezten diren eskabideak baloratzeko. Izangaien balorazioa egindakoan, eta berau kontuan hartuta, proposamena osatuko da dagokion izendapena egiteko. Epaimahaiak lanpostua hutsik uztea erabaki dezake, aurretik arrazoitutako txostena osatuta, baldin eta hautagaiek eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte.

Akta egingo da Batzordea biltzen den bakoitzean. Bertan, aurkeztutako izangaiak zerrendatuko dira, eta lanpostua beraietako bati esleitzeko edo deialdia bete gabe uzteko kontuan hartutako arrazoiak emango dira.

### 6.- Hautatzeko prozedura.

Inolaz ere ezingo dira baloratu deialdiaren iragarkia EHAAan argitaratzen den egunean eduki ez diren merituek eta eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen behar bezala aurkeztu eta egiaztatu ez direnak.



Izangaien balorazioa egindakoan, eta berau kontuan hartuta, proposamena osatuko da dagozkion funtzioak esleitzeko. Batzordeak lanpostua hutsik uztea erabaki dezake, aurretik arrazoitutako txostena osatuta, baldin eta hautagaiek eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte.

7.- Prozedurari amaiera ematen dion Ebazpena.


Hemen hasitako prozeduraren amaiera (lanpostua esleitzea edo hutsik uztea), Osakidetza Goierri-Urola Garaiko ESIko Zuzendari Gerentearen Ebazpenaren bitartez egingo da, eta Osakidetza intraneten eta web-orrian argitaratuko da. Era berean, iragarki bat argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Ebazpen horrek ondorioak izango ditu iragarkia EHAAr argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bertan besterik xedatu ezean behintzat.

8.- Ebazpen honen aurkako errekurtsuak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendari Nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Zumarragan, 2019ko matxoaren 22an.

  
**Osakidetza**  
GERENTZIA  
GERENCIA

Goierri-Urola Garaiko ESIko Zuzendari Gerentea  
LAURA AGUIRRE ALBERDI